

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MUGIKORTASUNeko, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia

Lezoko «Gaintxurizketa Goiko Bailaran hegazti harrapari-entzako gune zoologikoa antolatzeko Plan Berezia» interes publikokotzat deklaratzeko eskaera (GHI-050/24-J01).

Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiak, 2025eko abenduaren 19an, ebazpen bat eman zuen eta haren xedapen zatia argitarara ematen da hemen:

«Jendaurrean jartzea Juan M.^a Sánchez Frutos jaunak, Euskal Fauna, SLren izenean eta ordezkari-tan sustatutako Lezoko «Gaintxurizketa Goiko Bailaran hegazti harrapari-entzako gune zoologikoa antolatzeko Plan Berezia» interes publikokotzat jotzeko eskaera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Espedientea hogei eguneko epean aztertu ahal izango da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuaren bulegoetan (Julio Caro Baroja plaza 2, Donostia) eta Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren webgunean: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/lurralde-antolaketa>.

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu, izapide-egintza bat baita.»

Donostia, 2025eko abenduaren 19a.—Miren Itziar Miner Canflanca, idazkari teknikoa. (8830)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD, TURISMO Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Dirección General de Ordenación del Territorio

Solicitud de declaración de interés público del «Plan Especial de Ordenación de Núcleo Zoológico para aves rapaces en Gaintxurizketa Goiko Bailara» de Lezo (GHI-050/24-J01).

Con fecha 19 de diciembre de 2025, la Directora General de Ordenación del Territorio dictó la Resolución cuya parte dispositiva a continuación se publica:

«Someter al trámite de información pública la solicitud de declaración de interés público del «Plan Especial de Ordenación de Núcleo Zoológico para aves rapaces en Gaintxurizketa Goiko Bailara» de Lezo, promovido por D. Juan M.^a Sánchez Frutos en nombre y representación de Euskal Fauna, S.L., a los efectos previstos en el artículo 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Durante el plazo de veinte días, contados a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el expediente podrá examinarse en las oficinas del Servicio de Planificación Territorial de esta Diputación Foral de Gipuzkoa (Plaza Julio Caro Baroja n.º 2 de San Sebastián) y en la página web del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/lurralde-antolaketa>.

Contra la presente Resolución no procede recurso alguno por tratarse de un acto de trámite.»

San Sebastián, a 19 de diciembre de 2025.—La secretaria técnica, Miren Itziar Miner Canflanca. (8830)